

Toti Martínez de Lezea



L'ARRATIEN TABERNA

n a r r a t i b a

errien

L'ARRATIEN
TABERNA

n a r r a t i b a • 156

ere in

Obra honen edozein erreproduzio modu, banaketa, komunikazio publiko edo aldaketa egiteko, nahitaezkoa da jabeen baimena, legeak aurrez ikusitako salbuespenezko kasuetan salbu. Obra honen zatiren bat fotokopiatu edo eskaneatu nahi baduzu, jo CEDROra (Centro Español de Derechos Reprográficos, www.conlicencia.com; 91 702 19 70 / 93 272 04 47).

Liburu honek Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren dirulaguntza jaso du.

1. argitalpena: 2024ko irailean

Jatorrizko izenburua:

L'Arratien

Azala eta liburuaren diseinua:

A. Beltza

Maketazioa:

Erein

Azaleko irudia:

Aritz Albaizar

Itzulpena:

Miren Arratibel Garmendia (Rosetta TZ)

© Toti Martínez de Lezea

© EREIN. Donostia 2024

ISBN: 978-84-1093-002-5

L.G.: D 1008-2024

EREIN Argitaletxea. Tolosa Etorbidea 107

20018 Donostia

T 943 218 300

erein@erein.eus

www.erein.eus    

Inprimatzailea: Gertu inprimategia

Zubillaga industrialdea, 9

20569 Oiñati, Gipuzkoa

T 943 783 309

gertugrafika@gmail.com

www.gertu.net



Liburu hau inprimatzeko erabili den papera ekologikoa da eta modu jasangarrian kudeatutako basoetatik dator.

Toti Martínez de Lezea

L'ARRATIEN TABERNA

Itzulpena:
Miren Arratibel Garmendia

Portu txikiko kai muturrean eserita dago, hankak zintzilik, burua zuri, arratsalde argitsu batean, zeinetan parajea bihurtzen baita magiko, irudimena duenarentzat, edo, besterik gabe, polit, naturaren edertasuna gozagarri duenarentzat; ilundu zain dago, ermitara joan eta handik bere burua botatzeko itsasora, itsas eremu horretara non eratzen baita munduko olatu perfektuenetako bat, surflarien eta bisitarien gozamina. Bera ez da ez bata ez bestea; are gehiago, trebea da igerian, baina bere asmoa ez da gauzez bainua hartzea, baizik eta bere bizimodu miserablea behingoz etetea. Nolanahi dela ere, harri batzuk hartuko ditu, patriketan sartzeko, azken unean bizirik irauteko senak besoei eragitera bultzatuko balu ere. Beste egunsentirik ez ikusteko erabakia hartuta, hasperen egin, zutitu eta oinez abiatu da.

Hotz egiten du, ez da arimarik ikusten: ez zaio inor etorriko traba egitera, eta hareatzetan edo arroken artean zatikatuta topatuko dute haren gorpua. Ez daramatza aldean ez NANA ez mugikorra; beraz, inork ez du jakingo nor den, eta hilobi izengabe batean ehortziko dute. Ermitara bidean, zerbaitek arretea eman dio:

kable batetik zintzilik, idazkun ia irakurtezin bat argitzen du bonbilla batek. Hurreratu, eta irakurri egin du, «*L'Arratien*». Grazia egin dio taberna zulo lohia dirudien toki hari izen frantsesa jartzeko burutazioak; itxita dago, baina argia ikusten da barruan, eta kartel bat atean, eskuz idatzia, letra gorabeheratsuekin: «Sukaldaria behar da». Eta irribarre egin du. Nork lan egin nahiko luke, ba, erortzeko zorian dagoen lokal kaskar batean?

Zergatik oso ondo ez dakien arren, atea jo du hatz koskorrez. Handik puska batera, egur higituzko mahai batean eserita dago, basoerdi bat ardo arrunt duela eskuan, eta txorizo plater bat eta ogi zati lehor batzuk mahaian. Ganbaran lo egin du gau horretan, lurrean botatako lastaira batean, trastez inguratuta, eta suizidioaren ideia ahantzi du oraingoz.

Karmentxu, berriz, kostata lokartu da. Bururatzea ere ezezagun bizardun, tximaluze eta eskale itxurako bati sartzen uztea! Ez da izango, gero, drogatzen diren horietako bat edo, are okerragoa, hiltzaileraren bat? Egunkarien lerroburuak imajinatzen hasi da —«Alargun bat hil dute ohean lo zegoela»—, baina ez zaio bururatzten zer arrazoi eduki lezakeen inork bera hiltzeko, etxean ez baita sosik, ezta baliozko gauzarik ere. Eta adineko andrazkoak bortxatzen ibiltzen diren horietako bat bada? Halakoak ere badira eta... Presaka altxatu, eta gelako atea barrutik itxita duela egiaztatu du; baina, badaezpada ere, maratilararen azpian aulki bat jarri, eta berriro oheratu da, hotzeria datorkiola igarri orduko berogailuan menda hostoak irakiteko erabiltzen duen kazoa hartuta. Eguna argitzen hasita dago, lo hartu duenerako.

Goizeko bederatzia pasatxo esnatu da, eta ezusteko ederra hartu du: goiz ibili zalea izaki, barraren atzean izaten da zortzietarako, betiko lau bezeroei kafea eta patarra ateratzeko pronto. Handik minutu gutxira, eskailera presaka jaitsi, eta zur eta lur

gelditu da ikustean «arlotea», zeinari buruz ez baitaki izena besterik, Pello Segura, bezperakoaz oso bestelako itxuran. Tximak zapi batean bilduta –aho zapi batean, zehazki–, beste zapi bat lepoan, eta berak tiradera batean gordetzen dituen horietako mantal garbi bat soinean, bere betiko bezeroetako bi zerbitzatzen ari da, une horretan dauden bakarrak.

Erratza pasatu berri, kafe usaina dario lokalari, eta platerak ikusten dira barran, pintxoekin, baita gildak ere, eta pare bat saskitxo, ogi egin berriarekin. Kafe makinari adi, mutila ez da ohartu bera han dela, eta, hura konturatu gabe, sukaldean sartu da; ahozabalik gelditu da. Ez da bera txukunketa deskuidatzen duten horietakoa, baina harrituta gelditu da ikustean arraska distiratsu, espartzuak pilatuta, eta tresna, pote, flasko, plater, zar-tagin, kazola, mahai tresna, trapu eta enparauak bakoitza bere tokian, aspaldi ez bezala. Arreta eman dio lurrean txoko batean baztertutako eltze pilo batek, baina gero ohartu da batzuk azala altxatuta, koskatuta, hautsita daudela. Bota gabe zeuzkan, ez baitago jakiterik zer baitetarako balio lezaketen; baina, bistan da, sukaldari berria ez da iritzi berekoa. Itzuli da tabernara, eta bien begiradak gurutzatu egin dira. Bezeroak alde eginda daude, eta portura ematen duten leihoen azpiko bi mahaitxoetako bat seinalatu dio mutilak; eseri da Karmentxu hark esandako mahaian, eta, konturatzera, aurrean dauzka katilukada bat kafesne ke-tsu eta tortilla pintxo bero bat. Zenbat iraugo duen ez batek ez besteak ez dakiten arren biek ala biek emankorra espero duten harreman baten hasiera da; emakumeak laguntza eta babesu aurkitu ditu bizitza maldan behera hastera doakion unean; mutilak, etxea.

Pixkanaka, elkarri egokitu zaizkio, nahiz eta emakumeak ez duen lortzen jakiterik zerk eraman ote duen hara mutila, artean

gaztea, itxura onekoa eta, batez ere, sukaldari aparta. Galdetzen dionean, hauxe besterik ez dio hark erantzuten:

—Bizitzaren gorabeherak...

Eta ez dago hortik aterako duen amaren alabarik; badaki haren izena, baina ez nondik datorren edo familiarik baduen. Ez du lortzen, halaber, ilea moztea eta bizarra egitea; aurpegia mozorro baten atzean ezkutatu nahi balu bezala da. Hori bai, onartu dizkio bere senar zenaren arropa batzuk —biak antzeko gorpuzkera izaki—, eltze zaharrak ez botatzeko arrazoi beragatik gordeak zituena, norbaiti ondo etor zekizkiokeelakoan; batez ere, larruzko zamarra, senarrak bakailaotan zebilen arrantzale bati erosi eta altxortzat harturik ia inoiz jantzi ez zuena.

| 2 |

Handik sei hilabetera, oso bestelako tokia bihurtuta dago dozena erdi bat bezero besterik joan ohi ez ziren taberna ilun eta kalamastra hura. Ahoz ahoz zabaldu da sukaldari berriaren gaitasunen berri; hainbeste, non asteburuetan alde aurretik tokia gorde behar izaten baita. Arrakasta hura ikusirik, etxeari atxikitako estalpean obra egiteko baimena eskatu zuen nagusiak, behar bezalako jatetxe txiki bat atontzeko bertan. Baita baimena berehala jaso ere, eraikina orbana baitzen Mundakarentzat, herria gainezka egoen baitzen ia urte osoan, paisaiari eta inguruetako hondartzei eta, batez ere, ezker olatuari —Europako onena— esker. Hain zuzen ere, emakumeak lehenbailehen erretiroa hartu eta etxea salgai jar zezan irrikaz zeuden udala eta herrikideak.

Miraria dirudi lokalaren metamorfosiak. Ez soilik ipini dute jangela berria; orobat konpondu dute teilatua, margotu dituzte hormak, eta loreak jarri balkoi-leihoetan, eta, hala, askok eta askok ateratzen dituzte argazkiak L'Arratien tabernaren aurrean, zeinak baitu letrero berria ere, egur gainean eskuz margotua, eta jaso baititu oso kritika onuragarriak zenbait argitalpen gastronomikotan. Harrigarria da, hori bai, ez egotea kartarik; menu desberdina eskaintzen dute egunero, baina bakarra. Are gehiago, iritzi aldutako balute ere, erreserba egitean edo mahaira eseri aurretik jakinarazten zaie menua bezeroei, eta ohartarazten ez dagoela inolako aldaketarik egiterik eta sasoiari sasoiako arraina dela beti jaki nagusia. Ez hori bakarrik; arrain berarekin plater desberdinak egiten dituzte beti, eta horrek jakin-mina piztu du hara joan zaleak direnen artean.

Goiz irekitzen dute, betiko bezeroek goizeko kafea har dezaten, baina astelehenetan itxita egoten da, eta egun hori baliatzen du Pellok inbentarioa egiteko eta arrainez hornitzen duten arrantzaleekin tratua egiteko. Astelehena aprobetxatzen du, halaber, Bermeoko lonjara eta azokara joateko, baita inguruko baserri batzuetara ere, izakinak hartzera. Karmentxuren kamioneta zahar zalapartatsuan joaten da, Danielekin, arrantzale erretiratu bat, eskulanetan trebea, euro batzuen truke lantxoak egiten ibiltzen dena. Pellok ez du agiririk, eta ez luke nahi ezbeharren bat gertatuta atxilotzerik. Asteko menuen zerrenda ere prestatzen du, eta, aisiarako gelditzen zaion denboran, ermitara igo, itsasoari begira eseri, eta hantxe egoten da sorgortuta, iluntzera arte, euria egin eguraldi ona egin. Hitz urriko mutila da, eta hitz silababakarrez edo buru keinu soil batez erantzuten die galderei eta agurrei; herrikideek, ezizenen hain zaleak izanik, *bakartia* jarri diote azkerako.

Oraindik ere, bere buruari galdetzen dio zergatik aldatu ote zuen iritziz, zergatik ez ote zuen bere erabakiari jarraituz bere burua uretara bota, dena behin betiko amai zedin. Ez du erantzunik topatu artean. Ez du pentsatu nahi, baina ezin du saihestu bere aurreko bizitza gogoratzea, nola jo zuen goia eta jausi zen handik infernuko zulora. Baliteke behar duen bakea aurkitzea kostaldeko herri honetan edo beste edozein herri are txikiagotan, baina ondotxo daki denbora beharko duela bere deabruetz libratzeko, halakorik noizbait lortzekotan. Edonola dela ere, azken urteetan zeharo harapatuta eduki duen depresio egoeran ez jausteko behar bezain lanpetuta dauka lokaleko jardunak, eta oso eskertuta dago Karmentxu zintzoari, dagoeneko espero ez zuen aukera bat eman diolako.

| 3 |

Goiz batean, Bermeo eta Mundaka lotzen dituen kostaldeko errepidean oinez abiatu da Irati txikia, eta, handik hogeit hamar minutura, atea jo du itsasora ematen duen eraikin bateko laugarren solairuan, azkenekoan. Atea ireki duen gizona zur eta lur gelditu da une batez, parean ikusirik biloba, eskolako motxila bizkarrean eta masailak ibilaldiagatik distiratsu.

—Gurasoak eztabaidan ematen dute egun osoa —dio.

Etxean sartu, motxila egongelako butaka batean utzi eta sukaldera joan da zuzenean. Mahai gainean, basokada bat kafe dago, erdi edanda, eta madalena bat hartu du kafeontziaren alboan dagoen poltsa irekitik.

—Zergatik egiten dute eztabaida?

—Lagunak izateari utzi diotelako.

—Badakite hona etorri zarela? —galdetu du gizonak, edalontzian gelditzen zaiona hurrupa batez edan aurretik.

—Ez.

—Ez?

—Ea, aitita. Esan dizut errietan dabiltzala beti. Badakizu, banandu egin dira, eta ez dira jabetzen ni ere hor nagoela. Esan diet banindoala eskolara, eta ezta agurrik ere, eta erabaki dut zuregana etortzea bizitzera.

Eta, besterik gabe, beste madalena bat hartu, egongelara joan eta telebista piztu du.

Pako Goitiz leihotik itsasora begira dago. Badira ia bost urte erretiroa hartu zuela, merkataritza ontzi bateko makinista lana utzita, eta beste hainbeste emaztea hil zela; berrogei urtez egon ziren ezkontuta, baina haietatik bi ere ez zituzten egin elkarrekin. Ez zen egon alaba jaio zenean, ez zuen alaba hazten ikusi, doi-doi iritsi zen haren ezkontzara, eta biloba jaio zenean ere ez zegoen. Eta Miren... Eskerrak begiak betirako itxi aurretik eskutik heldu ahal izan zion. Ez zegoen erantzukirik haren begiradan, bai tristura handia, gizon haren absentziagatik, zeinarekin igo baitzen aldarera ilusioz beterik, baita melankolia izugarri bat ere, nagusituz joan zitzaiona apurka-apurka, garai batean gazte alaia izandako hura ia hitzik egiten ez zuen emakume tristea bihurtzeraino. Pentsatzen jarraitu nahi ezik, mugikorra atera du. Irati nirekin da tekleatu, eta umearengana joan da.

Libek eta Koldok handik puska batera jo dute atea, kezka dutela aurpegian ezagun. Agur esan gabe barrura sartu da alaba, baina suhi ohiaren eta atezangoaren artean kokatu da Pako, hura sar ez dadin.

—Zu, geratu kanpoan —esan, eta kolpe batez itxi du atea.

Sekula ez du izan gogokoa mutila: ederra, etorri handikoa eta buru gutxikoa, familiaren jabetxearen oinordeko bihurtua, kolpe zorrik jo gabe. Bermeoko jaietan ezagutu zuen alabak, hamabost urte lehenago, eta txoro bat bezala maitemindu zen; enpresa ikasketak eta pinturako eskolak utzi, eta harekin bizitzera joan zen, edo, hobeto esanda, harentzat doan lan egitera. Harrezkero, izan ere, Libe arduratu zen guztiaz: langileez, hornigaiez, sukaldeaz, menuz, garbiketaz... Eta Koldo, berriz, beti hitz eta pitz, tematzen den arren esaten harremanak egitea dela bere egitekoa, bezero berriak erakartzeko. Eta kutxa, jakina; kutxa kontrolatzeaz ere arduratzen da.

Emazte eta ama zutenaren gorpuzkiak bertan zirela tanatorioaren kanpoaldean alabarekin izandako agirakak mina handia egin zien biei, berari gehiago, beharbada, alabaren erantzukien-gatik, bai baitzekien arrazoia zeukala. Bakarrik erditu zen Miren, eta bakarrik hazi zuen alaba, bakarrik deitoratu bere ume hilak, bakarrik bizi bizitzaren erdia baino gehiago, eta bera... ez zitzaion guztiz leiala izan emazteari. Nola izan, baina, adinaren lorean egonik asteak ematen bazituen itsasoan? Burdel eta taberna zuloetan asetzen zituen irrikak, baina zin egin lezake ez zela hori besterik, hutsaldia. Salbuespen batekin...

—Ezetz! Aititarekin geratuko naizela!

Bilobaren ahotsak orainera ekarri, eta salan sartu da; amari aurpegi ematen ari zaio txikia, haren amak berekin hainbatetan egin bezala, eta irribarre egin du aitonak: bere izaeraren oinordeko dira biak ala biak.

Libe gogoetan ari da, balkoian zigarro bat erretzen duen bitartean, oraindik Koldorekin bizi den etxebizitzan; beharbada, une egokian etorri da umearen ihesa, gaitza gertatzen ari baitzaio orain bizi. Dagoeneko ez da hogeituro urteko neska gazte hura, andramarietan Lamera parkean edalontzi bat sagardo eskuan zeramala hurreratu zitzaion lau urte eskas zaharragoko mutil gazteaz maitemindu zena. Ez da oroitzen zer taldek jotzen zuen, baina bai bero handia zuela, denbora baitzeraman saltoka eta garrasi batean kantari. Ez zen elkar ikusten zuten lehen aldia; ostiral gauetan lagunekin joaten zen edaritegian topo egin ohi zuten, eta erakarri egiten zuen, inoiz elkarri hitzik egin ez bazioten ere. Irribarretsu hurrerutzen ikusi zuen, dutxatu berria balitz bezain fresko, bizar laburra, mahoizko alkandora eta arrantzale zapia lepoan, eta munduko mutilik erakargarriena begitandu zitzaion, hainbeste non lagunetz aiantzi eta mutilaren familiaren jatetxeko ganbaran amaitu baitzuen gaua. Birjina zen, eta ez zuen gozatu filmetan ikusten zuen moduan, ezta axolarik ere. Neska arrunta zen bera, ez zeukan bere adineko beste neskatilengandik bereizten zuen ezer, baina Bermeoko mutilik gutiziatuenaren besoetan deskubritu zuen sexua. Bihamunean, errepidetik lasterka zihoan goizeko zazpietarako, Mari Errauskin printze xarmagarriaren jauregitik ihesi bezalaxe. Ama lo zegoen artean; dutxatu, eta oheratu egin zen, minduta baina zoriontsu.

—Zergatik utzi diozu zaharrarekin gelditzen?

Koldok haserre egindako galdera horrek ekarri du orainera; hantzen artean iraungi zaio zigarroa, eta zigarrokinez beteta dagoen landarerik gabeko loreontzi batean sartu du.

—Gutxienez, han ez da iratzarriko ordu txikitari mozkor-mozkor eginda etortzen zarenean egiten dituzun deiadarrekin —erantzun dio.

—Aita naiz, eta eskubidea daukat erabakitzeko non bizi behar duen nire alabak.

—Gogorazten dizut dibortziatu egin garela eta epaileak niri eman didala zaintza.

—Eta zertan zabilta hemen, oraindino?

—Maletak prestatzen.

Begiratu ere egin gabe haren aurretik pasatu, eta dibortzioa eskatu zuenetik alabarekin partekatu duen logelan sartu da. Denbora honetan guztian negoziotaz eta etxeaz arduratzen jarraitu du, baina ez diote elkarri hitz egiten ia, korridorean topo egiten dutenean pare bat esaldi baino ez, eta, erantzuten duenean, liskarra izaten dute beti. Bere gauzak eta alabarenak maletan sartzen amaitu, ingurura begiratu, eta irten egin da.

—Jatetxean lanean jarraitu dezakezu –entzun dio esaten, atea itxi aurretik–. Soldata ona emango nizuke...

Hatza gora jasoz erantzun dio.

Auto zaharra dauka, hamar urtekoa, bere izenean jarri baitio Koldok, eskuzabal, hark behin eta berriro gogorazi dionez; auto berria erosi zuen Koldok, gorria eta zilindro bolumen handiagokoa. Handik gutxira, familiaren etxebizitzako garai bateko bere logelan sartu da. Ez dago inor; alaba eskolan izango da, eta aita buelta bat ematen, itsasoari begira, oso maitea baitu. Ohean eseri, leihotik zerura begiratu eta negarretan urtu da. Gero, lana bilatzera irten da.

Ez da lantegi erraza otsailaren amaieran, sasoi horretan apur bat behera egiten duelako ostalaritza jarduerak, eta abailduta itzuli da handik ordu batzuetara. Aitona-bilobak entretenituta daude arrantzontzi baten maketa muntatzen, hobby horretara zaletu baitzen gizona erretiroa hartutakoan; izan ere, ez da taberna-gizona eta ez du gustukoa irakurtzea edo telebista ikustea ere. Pakok ez du

ezer esan alabaren itxura etsia ikusita, baina, keinu bat egin dio, berekin sukaldera joan dadin, eta eguerdian sobratutako marmittako plater bat eta basoerdi bat ardo atera dizkio.

| 5 |

Astelehen batean, jada ilunduta dagoela ermitatik itzultzean, bigurutzeko batean auto bat agertu, eta hurre-hurretik pasatu zaio; harrapatu du ia. Pello durduzatatuta gelditu da une batez; halako batean, ibilgailua gelditu egin da, gidatzen zihoan emakumea autotik jaitsi eta beragana hurreratu da.

—Sentitzen dut... Ematen zuen ez zegoen inor eta... Sentitzen dut. Ondo zaude?

Ez du erantzun; emakume gazteari begiratu dio, zeina baitauka begira, arduratuta, eta bidean aurrera egin du.

—Sentitzen dut! —esaten entzun dio emakumeari, baina aurrera jarraitu du.

Ezin izan du saihestu, ordea, ironiazko keinu bat egitea. Segundo batez heriotzatik gertu egon da, eta, nahi gabe, emakume ero hark argi ikusarazi dio ez duela hil nahi, inondik inora: ez, behintzat, bere borondatez.

Biharamunean, eguerdi aldera, lanpetuen dagoen unean, etxe-koandrea sukaldean sartu, eltzeak eta erretiluak ikuskatu, eta egiaztatu du gauza gaitza dela, ezinezkoa ez esatearren, bien artean lokala aurrera ateratzea. Platerak mahaira eramatera besterik ez da irteten Pello sukaldetik, eta berak arduratu behar du haiek biltzeaz, barrakoei zerbitzatzeaz, kafe, infusio eta kopak prestatzeaz. Bai, Pellok egiten du harrikoa, baina berak bi lokalen txukunketa, taberna

eta jangelarena, baita mahai zapiak eta aho zapiak garbitu, eskegi eta lisatu ere. Lan gehiegi, erretiroa hartzearen adineko emakume batentzat. Ia arnasarik hartu gabe hasi da hizketan; bitartean, Karmentxuk nora iritsi nahi ote duen igarri nahian, zirkinik egin gabe entzuten dio Pellok, gaurko menurako aurreikusita daukan izokina laranjarekin prestatzeko tipula txikitzeari utzi gabe.

—Gaurtik hasita, laguntzaile bat izango dugu.

Bekainak jaso ditu, harrituta, eta begitandu zaio ugazabandreak lasaitua hartu duela, bera uko egingo ote zion beldur balitz bezala. Bera ere konturatuta dago, ordea, lan handiegia dela hura bientzat eta komeniko litzaiekeela laguntza izatea. Ez dio ezer esan, nagikeriagatik, baita bere eden partikularra beste norbaitekin partekatzeko nolabaiteko errezeloagatik ere.

—Zatoz —entzun dio—. Libe Goitiz. Pello Segura.

Bekainak jaso ditu, harrituta; kasualitatea da, gero! Bezpera gauean autoarekin ia harrapatu zuen emakumea da. Itxura denez, emakumeak ez du ezagutu, baina, jakina, orain mantala darama soinean, aho zapi bat lepoan eta beste bat buruan: antz handirik ez bezperan larruzko zamarra jantzita zeraman oinezkoarekin.

Aurkezpenak amaituta, etxeoandreak berekin eraman du iritsi berria, lokala erakustera, eta, bide batez, sukaldariak gauza desegokiren bat esan dezan saihesteko. Etxekoandreak atzetik doala, Libek pentsatu besterik ez du egiten zein zorte ona izan den Karmentxu topatu izana, ama zenaren lagun mina, bakarra ez esatearren. Goizean, portura joan da, apur bat lasaitzera, lana bilatzen ahalegindu ondoren —berriro ere, arrakastarik gabe— hotel eta tabernetan, baita kontserba lantegietan ere, eta are dendaren batean. Herri txikia da Mundaka, eta ez dago aukera handirik urteko sasoi honetan; errazago topatuko luke zerbait Bermeon, baina ez du itzuli nahi izugarri zoriontsua eta zorigaiztokoa ere izan zen tokira.

Inondik inora ez du bikote ohiarekin topo egin nahi, ezta bien lagunekin ere, ez azalpenik eman nahi, ezer gertatu ez balitz bezala irribarre egin... Bestalde, ez du batere gogobetetzen aitaren etxean bizi beharrak; oroitzapen gehiegi dakarzkio, amaren bakardadearen errudun egiten du oraindik aita, eta erabat konbentzitura dago lehenago edo geroago aurpegiratu egingo diola ikasketak utzi izana brageta-handi ganorabakoarekin –halaxe deitzen zion aitak Koldori– bizitzera joateko. Ez du inorekin agiraka ibili nahi, alabak eta biak lasai bizi ahal izateko bidea topatu besterik ez. Eta horretan, L'Arratien begiz jo du.

Berak gogoan zuen taberna kalamastra hura toki xarmagarria da orain. Nagusia kanpoaldean hormaren kontra ipinitako bi mahaitxoetako batean eserita dagoen bikote batekin ari da une horretan. Irribarrea ezpainetan duela harengana joan, eta haren izenez deitu dio. Emakumeak instant batzuk behar izan ditu Libe ezagutzeko, ez baitira urteak alferrik pasatzen eta aspaldi baita elkar ikusten ez dutela; oihutxo bat egin, eta besarkatu egin du, txikitan ama eta biak arratsalde erdian kafesnea hartzera harenera joaten zirenean bezalaxe. Ama eta laguna beren kontuez berriketan ari ziren bitartean, etxean gora eta behera ibiltzen zen bera: logeletan sartzen zen, ganbarara igo –trastez beterik baitzegoen–, portura ematen duen leihatilatik begira egon, eta imajinatzen zuen abentura bila itsasoratzen zela ontzi bikingo batean, andereñoak eskolan kontaktzen zuenez hainbat mende lehenago kostaldera iritsi zen hartan, zeinetako marinela ezkondu baitziren herriko neskatilekin; horregatik omen zeuden hainbeste begi-urdin Mundakan, gehitu ohi zuen andereñoak irribarre batez. Ez dio Iratiri kontu hori inoiz kontatu; erditu eta gutxira eten zitzaien ametsa, konturatu baitzen Koldo ez zela izango ez senar ez aita desiratua.

Gaingiroki kontatu dio, xehetasun askorik eman gabe, zer egoeratan dagoen, eta poz izugarria hartu du Karmentxuk eskaini dionean tabernan lan egitea berekin, ez beretzat, azpimarratu du. Ederki doa negozioia, hilabete batzuk lehenago uste ez bezala, eta guztia, edozein plater arrunt artelan bihurtzeko kapaz den sukaldari bati esker, esan dio etxekoandreak pozik, barrezka. Laguntza behar dute, eta zein hobeto, bera bezala konfiantzazkoa den eta eskarmentua duen norbait baino; hala ere, aitortu dio, mutila ez da eramaten erraza, baina, azken batean, ez dute asko hitz egin beharrik ere, aski da negozioaren hobe beharrari begiratzea.

| 6 |

Libek eta alabak alde egin dutenetik, artega dabil Koldo Sola. Lehen ere ez zen etxean asko egoten, baina, itzultzean, beti topatzen zuen txukun, ahotsak eta algarak aditzen zituen eta jaikitzean prest edukitzen zuen gosaria, arropa garbituta eta lisatuta tiraderetan, toalla garbiak, hozkailua beteta. Ingurura begiratu besterik ez dago ikusteko mutilzahar baten pisua esaten zaion horietakoa dela orain bere etxea... narrasa; ez desordenatua bakarrik, baita zikina ere. Kezkagarriena, hala ere, hauxe da: azkenaldian, ez duela lagunekin irteteko eta lehen bezala parrandan ibiltzeko gogorik. Emakumeak begiradaz biluztera zeraman grina haragikoia ere galdua du, eta ez da biltegi itzuli ere egin Marilorekin –zeinarekin harrapatu baitzuen bikotekide ohiak–, nahiz eta neskak barre txikiak egiten dizkion beren arteko harreman hasiberriarekin jarraituzera gonbidatuz bezala. Gainera, arduradun berria kontratatu behar izan du Liberen lana egin dezan; eta ez da gaizki moldatzen,

baina... ez da gauza bera. Bere baitan, bazuen Libe edozein unetan itzuliko zen itzaropena; ez zitzaion iruditzen aitarekin biziko zenik, eta bazeukaten zerbait adostea. Gainera, kontserba lantegi batean diharduen lagun batek fabrikari ikusi omen zuen, baina ez zuten kontratatu, antza. Kostatuko zitzaion ezer topatzea, ez baitago lan handirik, are gehiago sasoiz kanpo, eta itzuliko zen, burumakur, eta orduan exijituko zion Iratirekin bere pisuan bizitzeko eta denaz arduratzeko, lehen bezala. Baina egunak aurrera doaz, eta ez dago haren arrastorik.

Mugimendurik ez zegoela ikusita, jabetzea itxi du, balantzea egin behar duela argudiatuta, eta, zazpiak aldera, Mundakan agertu da, haurra ikusteko aitzakian, nahiz eta haren ama zer moduz dabilen eta Bermeora itzultzeko itxururik baduen ikustera doan benetan. Etxean inor ez, eta pentsatu du paseora irtengo zirela agurea, haren alaba eta biloba, oskarbi baitago eta sumatzen baita udaberria bertan dela, tenperatura oraindik freskoa izan arren. Itxarrotea erabaki du, eta portu aldera inguratu da, kaña bat edatera. Itzelezko ustekabea hartu du taberna zulo lohi modura gogoratzen zuena zein polita dagoen ikustean; eta, jakin-mina sentitu, eta sartzearabaki du.

Lehen-lehenik, arreta eman dio tabernako giro apartak, mahaiak beteta ikusteak eta barra era guztietako pintxoak gainezka egoiteak. Adineko zerbitzariari garagardo hori bat eskatu, eta bazter batean jarri da, inori eta inork traba ez egiteko, jangelako sarreraren ondoan, barruan ez baita argirik eta ezta sumatzen ere mugimendurik.

—Zer? Bezerorik ez? —galdetu dio emakumeari, jangelako ilunpea seinalatuz.

—Gura lukete batzuek! Baina eguerdian bazkariak eta arratsaldean pintxoak besterik ez ditugu ematen.

—Ezkontzak? Jaunartzeak? Enpresa bazkariak?

—Ezta pentsatu ere. Lokala ez da handia, ikusten duzunez.

—Ondo doakizuela dirudi, ba...

—Ederto doakigu.

Emakumeak barretxo bat egin, eta beste bezero batengana joan da.

Ziztuan desagertzen dira pintxoak, baita abiadura berean haiek ordezkutzen ere. Hipnotizatuta, erretiluak husten eta minutu gutxian berriro beteta agertzen ikusten ditu, eta, are harrigarriagoa dena, beti desberdinak dira pintxoak, urrearen prezioan eskaintzen dituzten eta berak ere gustura asko zerbitzatuko lituzkeen hogeii errazio ñimiñoko dastatze menu horietako bat balitz bezala. Denbora puska bat igaro arte ez dio erreparatu platerak ordezkatzear arduratzen den neskari; bizkarrez ikusi du, eta popa ederra duela pentsatzea besterik ez zaio bururatu; gero, neska jiratu denean barrako andreak egindako galdera bati erantzutera, edalontzia eskuetik jausi zaio ia. Zer egiten du hark hemen?

Luze egon da hari begira, eginahalak eginez neskak berari erreparatu ez diezaion, zeina ez baita batere gaitza, lokala lepo beteta egonik. Bakeroak, alkandora koadroduna, mantala, zapi bat buruan eta laneko atzera-aurrerarekin masailak bero, sukaldetik plater beteekin irten eta berriro sartzen plater hutsekin, bezeroak agurtuz eta barre eginez norbaitek zerbait esanda. Gazteagoa eta alaiagoa dirudi, eta jeloskor edo sentitzen da; bistan da ez duela berari erreguka joateko inolako asmorik. Une batez, hura agurtzea pentsatu du, baina iritzia aldatu, barran pare bat euro utzi, eta lokaletik irten da, Libe begi bistatik desagertu orduko. Aitagarreba ohiaren etxeko leihoetan argia dago orain, baina ez da hara inguratu; autora joan, eta ziztu bizian alde egin du Bermeo aldera. Gau hartan, mezu bat bidali dio: